



Urrietako lau gaztek kostako ibilbideko Euskadiko zatia egin dute

## Bigarren eskuko azoka jendetsua

Inoiz baino herritar gehiagok jarri zuen postua Andoaingo bigarren eskuko produktuen azokan.

**H**amar urte bete ditu Zumea plazan egiten den "Zaharra berrituz" izeneko azokak. Saltzaile eta erosle kopuruan gorantz doa eta arrazoiak ezberdinak izan daitezke: berrerabilpenaren alde jokatu nahia, etxean tokirik ez duten objektuei aterabidea ematea, xoxak irabazteko asmoa..., nork bere arrazoiak edukiko ditu. Aiurri astekariak azokako mahai guztien artean bost kide edo talderen iritzia bildu zuen. **Faustino Julio** andoaindarrarentzat lehen aldia izan zen, "gauza berria da niretzat jen-



Saltzaile lanetan Faustino Julio andoaindarrarentzat lehen aldia izan zen.

daurrean saltzaile gisa jartzea. Zer dela eta animatu naizen? Praktikotasunagatik, lehenengo eta behin. Erabiltzen ez ditudan objektuak dauzkat etxean eta

zaborretara bota baino, nahia-go dut inguruko jendeari eman, diru irabazi asmorik gabeko elkarteren bati eskaini edota salgai jarri. Bestalde, atsegin dut

birziklapenaren inguruan azoka honek urtez urte sortzen duen giroa, eta noizbait bertan parte hartzeko gogoia banuen.

Arropa, irudi propagandistiko bereziren bat duten metxero zaharrak, argazki zaharrak, patrikako eleberririk, apaingarriak..., denetik daukat nire mahaietan. Salmentari dagokionez, bada, ez nuen espero baina pare bat bildumazale etorri zaizkit eta metxero eta nobela mordoa eraman dituzte. Arreta piztu dit mota horretako bildumazaleak izan badirela ikusteak. Begia zorrotzuta ibiltzen dira mahaitik mahaira".

Haur, gazte eta helduen topaleku bilakatu da "Zaharrak berrituz" bigarren eskuko produktuen azoka.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



## Ibarretxe Andoainen hizlari

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]



## Pausoka elkartearen alde

Pausoka elkartearen ekimen be-tan da, eta pixkanaka urriaren 11n ospatuko duten egun osoko festa iragartzen hasi dira. Bi urteko epean elkartearen hirukoiztu egin da, 2012an hamabi familiarekin abiatu eta dagoeneko berrogeita hiru baitira.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

## San Fermin eguna Goikoplazan

Udako aisialdia osatzeko ekimen ugari Andoainen eta Urnietan.

Ikasturtea amaituta, aisialdia osatzeko jarduerak ugari burutzen ari dira egun hauetan. Andoainera eta Urnietara ere aisialdi giro horretan urtero iristen da Iruñeko San Fermin jaiaren oihartzuna. Bi herrietan ere, haur askoren gozamenerako, entziero txikiak antolatuta zizuten.

Gaztetxoentzat, bestalde, aukera ugari dago bi herrietan.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]



Uda honetan ere, Aiurri.com gunean edizio jarraitua: Albisteak, azken ordukoak, agenda, argazkiak, bideoak eta auzoetako jaien jarraipena

- **Karrikako jaiak:** Uztailak 18, 19, 20.
- **Etxeberrietako jaiak:** Uztailak 25, 26, 27, 30, 31.
- **Goiburuko jaiak:** Uztailak 31. Abuztuak 1, 2, 3.
- **Buruntzako jaiak:** Abuztuak 9, 15, 16.



## Urtzi Telleria hirugarren harri txikien finalean



Sari-banaketa ekitaldia. Eskuinean, Telleria.

Usurbilgo Santixabeletan Gipuzkoako harri txikien txapelketako finala jokatu zen, aurreko asteburuan. Urtzi Telleria hirugarren sailkatu zen. Horra sailkapena:

1 J.M.Iruretagoiena, Izeta III: 76 altxaldi (8.600 kg).

2 Joseba Ostolaza: 75 altxaldi (8.487,5 kg).

3 Urtzi Telleria, Telleria II: 64 altxaldi (7.200 kg).

4 Iban Ugartemendia: 62 altxaldi (7.025 kg).

5 Aimar Galarraga: 49 altxaldi (5.612,5 kg)

## Saharako haurrak herrian



Udaletxean harrera egin zieten haurrei eta hartuko dituzten familiei.

Astelehen arratsaldean Udalak ongietorria eman zien Sahara aldetik etorri diren bi haurrei eta hauek hartuko di-

tuzten familiei. Bi haurreta-ko bat Urnietara etortzera ohituta dago, eta bestea lehen aldiz etorri da Urnietara.

## Pastorala-Udala hitzarmena

Urnietako Udalak parrokiarekin hitzarmena sinatuko du egun hauetan, bereziki, Osasun Pastoralak 80 urte-rik gorako herritarrekin be-

tetzen duen funtzioa egiten jarrai dezan. Udalak pastorala egiten duen lan soziala aitortu nahi du, besteak beste, hitzarmenaren bidez.

## Pausoka elkartearen alde



Txikleak erosteko aukera ugari dago Urnietan.

Gaixotasun arraroak dituzten haurren elkarteak bata bestearen atzetik uztartzen ditu ekimenak. Elkartasunezko txikleak euro batean atera dituzte eta dagoeneko Urnietako hainbat saltokitan eskuragarri daude. Kanpaina iragartzeko txarteletan, gainera, "Pausoka eguna" izango dena iragartzen hasi dira. Alegia, elkarteak egun osoko ospakizuna antolatuko duela urriaren 11n.

ENBA sindikatuaren eskutik, "8 euskal baserri" ekimena

## Eula baserrira bisitaldia

**E**NBA nekazarien sindikatuak "8 euskal baserri" izeneko ate irekiko jardunaldia antolatu zuen atzo Gipuzkoako zortzi baserritan. Jardunaldian parte hartu zuten zortzi baserriak Irun, Astigarraga, Oñati, Azpeitia, Getaria, Oiartzun, Beizama eta Urnietakoak izan ziren. Honela, baserriak bisitatze eta, bide batez, nola funtzionatzen duten ikasteko aukera izan zuten bisitariak.

Urnietan, Eula baserria bisitatze eta aukera izan zen. Euskal gastronomian interesatutako batzuk agertu baziren ere, hainbat familik haurrekin goiz pasa egiteko aprobetxatu zuten. Hogei lagun inguru gerturatu ziren Eula baserrira eta Aitor Iguaranen gidaritzapean bisitariak sagardoa nola egiten duten ikasi zuten.

Eulak hamaika hektarea ditu sagastitan, lau mila sagarrondotik gora. Horiek ikusi bitartean, sagarrak nola biltzen zituzten erakutsi zieten bisitariari. Punta zorrotzeko makilekin, eskuz biltzen dituzte sagar guztiak bost lagunaren artean. 2013an, esate baterako, berrehun mila kilo bildu zituzten guztira. Zur eta lur geratu ziren bisitariak hori entzutean eta bisitaldian bertan konturatu ziren horixe zela sagardoa egitearen pausorik zailena: sagarrak biltzea.



Hainbat familik haurrekin goiz pasa egiteko aprobetxatu zuten.



Aitor Iguaranen gidaritzapean bisitariak sagardoa nola egiten duten ikasi zuten.

Hortik aurrerako prozesu guztia baserrian bertan egiten dute eta erabiltzen dituzten makinak eta bakoitzaren funtzioa ezagutu zuten bertaratuak; sagarrak bildu eta gar-

bitzetik, sagardoa botiletan sartu eta etiketatzeraino. Amaitzeko, noski, sagardoa dastatzeko aukera izan zuten eta mokadutxo bat jenez bukatu zuten bisitaldia.

Lizarribari eta Genbeltzuri elkartasuna adierazteko hitzordua

## Bertso afaria Besabin

Amets Arzallus eta Sustrai Colina kantari aritu ziren Besadin, Jon Lizarribar urnietarraren eta Ruben Genbeltzu andoaindarraren alde antolatu zuten bertso afarian. Bertaratu zirenen artean giro ederra sortu zen. Hori bertso sorta:

**Colina:** Batzuek bakerako ez dute interesik, hori frogatzen dute hamaika polizik. Ez baita politikaik nahi ez duen juezik, Ruben ta Jon bizi zaitezte poz pozik, zorterik ez dugu nahi justizia baizik.

**Arzallus:** Barre, bertso ta kantu zenbat zeremoni, azkenean sortu da nahikoa armoni. Nahiko gustora jardun gerade geroni, beraz besarkada bat entzulego honi eta estuago bat Rubeni ta Joni.

**Arzallus:** Nahiz eta urteetan genbiltzan ahulduta orain ia ez gauzkate horren zapalduta. Berak ez ote dabiltz korrea galduta, gu zain egongo gera beso zabaldua ta ahal bada elkarri eskutik helduta.



**Colina:** Jokoarekin nekez egiten da jolas, baina hitza hitza da ta solasa solasa. Aspaldian gabiltza aurrerako asmoaz ume txikien pozez ta ilusioaz, bidea badakigu ta aurrera goaz.

**Arzallus:** Nahiz igual noizbait heldu zitako gutuna ta beldurgarri dela izan jakituna, aldekoa atera liteke ituna. Esango det behinola Irlandan entzuna, haurren irriparra da gure erantzuna.

Lau gaztek kostako ibilbidearen ehun kilometro egin dituzte

## Donejakue bidean barrena

**U**da hasieratik oporraldiari zukua atera nahi izan dion laukoteak mendiko botak jantzi eta Donejakue bidea egiteari ekin zion. Kostako bidea aukeratu eta lau gazteak Donostiatik irten ziren, Zumaiarako bidean. Lehen egun hartan Maialen Miranda, Adriana Ugarte, Nerea Zubimendi eta Andrea Legarra abiatu ziren. Nereak lehen etapa osatu zuen eta gainerako hirurek lau egunetan 108 kilometro egin dituzte oinez. Honako etapak, hurrenez hurren: Donostia-Zumaia, Zumaia-Markina Xemein, Markina Xemein-Gernika eta Gernika-Bilbo.

Egun horietako zeharkaldia sare sozial ezagun batean aditza eman dute, argazki bidez. Esperientziak galdetuta, **Andrea Legarra**rentzat ahaztezi-na izan da, "zirrarez betetako lau egun izan dira, denetik bizi izan dugu: zoriontasuna, nekea, gosea, beroa, poza, indarra, elkartasuna...". Goizean irten eta egun osoan oinez ibili ondoren, atsedena gogoz hartzen zutela gaineratu du, "eguneko unerik onena aterpetxera iristen ginenekoa izaten zen. Egun osoan bizi eta egindakoz jabetzen zinen eta izugarriko bizipoza sentitzen zenuen, hurrengo egunerako gogoz!".

Urnietan aspertuta eta Done-



Zutik Maialen Miranda eta Adriana Ugarte. Behean, Nerea Zubimendi eta Andrea Legarra.



Lehen egunean Donostia eta Zumaia arteko ibilbidea osatu zuten.

jakue bidearen zati bat egitea erabaki zutela dio **Adriana Ugartek**, "ondoan irteten diren bidaiak minutu gutxitan antolatutakoak izaten direla diote. Hau ere horrelaxe izan zen, aspertuta geunden arrats batean erabaki eta hurrengo egunean motxila jantzi genuen". Ibilaldi luzeak burutzeko norberaren gaitasuna eta indarra proban jartzeko baliagarri izan dela dio, "kideetako bat gaizki jarriz gero, beti genuen alboan bat laguntza eskaini eta taldeak aurrera egitekonorbait. Eta azkenerako, denak eman diogu laguntza elkarri. Hori baita honelako esperientziakin ikasten den altxorrik preziatuena, laguntasunarena". Bizitzan oroi-menean gordeko diren esperientziak burutzeko maiz ez da gauza handirik behar. Gazte hauek botak jantzi eta ibilaldi ederra egin zuten.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

## Haurrari buruz ikasketa

**F**amiliar bihurtzen ari zait idaztea eta zuekin komunikatzea. Oso bizigarri zait hau egitea. Denbora falta zait, dedan denbora ilusio guztiekin aprobetxatzen dut. Batzuek esan didate "oso umezalea zara" eta aitortzen dut hala dela. Nere bizitzan ugariak izan dira antolatu ditudan mendiko irteerak eta abar. Herriaren ere Langile ikastolaren sorreran ahaleginu nintzen helburura eramaten, Urnieta etorri eta guraso eta amen taldeak egin nituen haurren heziketari buruz eta astero talde batzuk biltzen ginen horretarako. Gero, Kate-

kesisa oso bizigarri zitzaidan. Goize-ro jaikitzen nintzan, goiz, 8etatik 9etara, eskoletara zihoazten haur eta amei agurra egiteko eta "¡chócala!" bat bakoitzari egiteko eta herriko plazan igarotzen nuen nere tarterik onena egun osoan.

Eskoletara ere joaten nintzen errekreoko denboran haiekin jolastera. Joe-rra horri "bokazio" esan diezaioket, lan hau gustagarri bihurtzea, horretan zoriontsu izatea, horretarako abildadea izatea, zeozer ententitzea eta abar. Nere gogoia izango litzateke eskaintzen dizkizuegun bideak, ikasketak, zuek gurasook aintzakotzat hartzea, zuen haurrentzat dezuen gogoia handitzeko behar bada, nola hezi asmatzeko. Idazki hauek egiteko motibo bakarra hau da: zuek motibatzea, bultzatzea, eskaintako bide hauek aprobetxa ditzazuen.

Labetik atera berri den ogira denak harrapaka joaten diren bezala erostera, joan zaitezten ikasketak horiek egitera. Nik hau eskaintzen badet da serio, ez det gauza haundiagorik ikusten Urnietan egiteko, ez nuke itzali nahi hau burutu gabe. Badira ikasketak batzuk haurraren heziketari buruz, nik bizitza oso-

an aurkitu ditudan berezienak, laburtuaz: haurrak zazpi bat behar ditu ase beharrekoak eta asetzen ez badira bizitza guztirako kaltea dakarkie. Zein behar-rrak diren, nola praktikatu, landu litezkeen erakusten dute. Gaia hau da, ez da nolana hiko. Emaila Hermanin bizi da. Urte asko pasa ditu prestatzen. Gipuzkoan bi bakarrik daude emateko baimena dutenak. Benetako altxorra da hau gure zerbitzuan egotea eta hain gertu. Irailean emango du, abisatuko dizuet aurretik. Hamabosteko taldetan ematen du eta apuntatu hala.

Kalean ikusi dut iragarki bat, Oreakan izenarekin, emaila ezagutzen dut: Jaio Iturbe. Hau ere hari berean dihoa. Ikasketak egokiak egin ditu eta ez da joan atzerrira bere ikasketak eskaintzera, Urnietan gelditu da. Familiari eta haurrari eskainiak dira. Bereziki hil honen bukaera eta uztailean emango ditu. Era berriak ditu. Hau iragar-tzen dut nire kabuz miresgarri derit-zodalako Jaioaren eskaintza honi. Badakit zer formazio duen eta ez bazterrean utzi; benetako ohore bat da Urnietan honelako eskaintza aprobetxatzeko aukera izatea. Bere zenbakia: 607-732-983.

## Estatubatuarrak Urnietan, Donosti Cup lehiaketan



Dallas Texans estatubatuar taldeak 2-1 garaitu zuen Urnieta.

Astearte goizean urnietarrek Dallas Texans estatubatuar taldea hartu zuten etxeko zelaietan, urtero data hauetan jokatzeko den Donosti Cup txapelketaren baitan. Munduaren beste aldetik etorritako Dallas Texans taldeko entrenatzailea esperientziarekin gustura agertu zen. Partida hasi aurretik zera zioen: "Hiru egun daramatzagu hemen, mutilak gustura daude eta esperientzia honetan ondo pasatzen ari gara. AEBtakoak izanik, noski, ez dugu Urnietako taldea ezagutzen, baina atzo ondo jolastu zuten eta, beraz, partidarako gogoz nago. Espero dut partida hau ere atzokoa bezain ona izatea".

Ez ziren gogotsu zeuden bakarrak, Urnieta KE taldeko gaztetxoak ere jokatzeko irrikaz baitzeuden, urduri egon arren: "Hiru aste dara-

matzagu entrenatzen Donosti Cuperako. Atzo galdu egin genuen, baina gaur gogotsu gatoz, irabazteko asmoz". Beldur apur bat zieten amerikarrei, baina zelaira indarrez eta kementsu atera ziren. Zoritxarrez, 2-1 galdu egin zuten.

Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketaren 23. edizioan lau egunetako partidak jokatu dira Urnietan. Aurten, lehiaketan 22 herrialde ezberdinetako 423 taldek hartuko dute parte. Uztailaren 6an hasi eta 12an amaituko da, bitarte horretan mila partidatik gora jokatu. Antolatzaileek azaldu dutenez, lehen fasea astean zehar izango da. Ostegun eta ostiralean, berriz, azken txanpa eta kontsolazio partidak jokatu dira; eta azkenik, larunbatean Anoeta estadioan finalak jokatu dira.



Urnietako mutilak partida hasi aurretik.

## Proposamenak jaietarako



Iazko jaien aurkezpena.

Udalak jaietako batzordearen funtzionamendua gidatuko duen arautegia onartu zuen ekainean. Asteazken honetan bilera irekia egiteko zen, gai honen beraren inguruan. Udalak jakinarazi duenez jaietako buruzko ekarpenak eta proposamenak egiteko epea uztailaren 11 bitarte zabalik dago. Proposamen e-postaz bidal daitezke: jaiak@urnieta.org.

BURUNTZALDEKO UDAL ZEIN IKASTETXEEN ETA BERTSOZALE ELKARTEAREN ARTEKO ELKARLANARI ESKER BURUTZEN DA

# “Gu ere bertsoan” ekimena

Unai Muñoa bertsolari lasarte-oriatarra da “Gu ere bertsoan” programa Buruntzaldeko ikastetxeetan gidatzen duen pertsona. Bertsolaritza eta ahozkotatasuna ez ezik, hezkuntzarekin lotutako beste

zenbait arlo lantzea du helburu. Programa hori Buruntzaldeko Udal zein ikastetxeen eta Bertsozale Elkartearen arteko elkarlanari esker burutzen da.

## Zer da “Gu ere bertsoan” programa?

**Unai Muñoa:** Bertsozale Elkarteak “Bertsolaritza eta ahozkotatasuna” izeneko proiektu pedagogikoa jarri zuen abian Euskal Herri mailan orain urte batzuk, eta “Gu ere bertsoan” horren jarraipena da. Bertsolaritza hezkuntza arautuan lantzea du helburu nagusi. Hausnarketa jakin batek eraman zuen proiektu hori burutzera: alegia, bertsogintzarekin lotutako kultur transmisioa familian ez zela iraganean bezain natural ematen ari. Horrez gain, argi dago bertsolaritza bide ematen duela gazteek euskararekin harreman ludikoa landu dezaten, eta aldi berean, euren garapenean beste zenbait onura gerta daitezten, esaterako, irudimenerako, diskurtso baten eraketarako edota memorizazio gaitasuna garatzeko.

## Nori zuzenduta dago?

**U.M.:** Era guztietako ikastetxeak hartzen dute parte programa honetan, baita hizkuntza profil ezberdinekoek ere. Hiru urteko iraupena du berez, eta esaterako, halaxe egiten da Urnietan, LHko 5-6 mailatan eta DBH1-en. Andoainen, ostera, bi urtetara murrizten da. Ander Lizarralde eta Alaia Martin Urnietan aritu dira aurretik; neu Andoainen.

## Zein asmorekin joaten zara ikasgeletera?



Unai Muñoa bertsolariak ikasle askorekin jarduten du.

**U.M.:** Esan nezake eboluzionatzen joan naizela, eskarmentuak horretara bultzatuta. Hasierako urtetan itsutuago nabilen bertsolaritza beraren transmisioan; hala nola, arauak eta egiturak jakinarazi, bertsoekin jolasak egin, komunikazio gaitasuna landu... Asmo horiek denak helburu izaten jarraitzen dute, baina bertsolaritza tresna gisa ikusten dut gehiago. Tresna, gazteen heziketarako. Bertsolaritza azken batean komunikazioa denez, alderdi pertsonalak lantzeko aukera ematen du; esaterako, emozionala.

## Zer moduz hartzen dute ikasleek bertsolaritza ordu hori?

**U.M.:** Adin onekoengana hurbiltzen gara, berez. Nerabezaroa-

ren aurreko urteak dira, urte konplikatua; alegia, gauza askoren aurka (baita bertsolaritza) jartzeko urteak. Oraindik ez dituzte identifikazio edo moda kontuak barneratu, eta jarra irekiagoa agertzen dute. Gainera bertsolaritza, beste ikasgaiak ez bezala, ez da ebaluatzen. Nire aldetik, klasean umorea txertatzen saiatzen naiz, jakinda ordu gehienak gai akademiko eta formalekin igarotzen dituztela. Aurpegi berri bat naiz eurentzat, amasaldi bat hein batean. Bada, testuinguru horretan, “espazio” umoretsu eta aske bat sortzen saiatzen naiz.

## Oso gustura sumatu ohi dira ikasleak urtero antolatzen duen Basteroko emanaldian...

**U.M.:** Prestatze lan handia egiten dugu aurreko asteetan. Beraiek egiten dute guztia: gaien hautaketa, gidoia, janzkera, bertsoen sormena... Ehunka ikusle biltzen dira Basteron, eta neuk nire aldetik batez ere arlo komunikatiboa azpimarratzen dut. Ikusleengana modu eraginkorren iristeko laguntza eskaintzen diet.

## Bizpahiru urtez zuekin aritu ostean, Andoaingo ikasleek badute pauso bat aurrera egiteko aukera orain...

**U.M.:** Halaxe da, Jon Beloki irakasle duen bertso eskola sortu baita aurretik 6. mailatik gorako ikasleentzat. Arkatza eta papera erabiliz idatzizko bertso gintzan trebatzen ditugu ikastetxean, eta hortik aurrera bapatekotasunerako pausoa eman nahi duen ikasleari ezin egokiago datorkio bertso eskola berri hori.

## Andoaingo helduen bertso eskolako irakasle zaitugu...

**U.M.:** Iaz jarri zen abian eskola, hamar lagunekin, nor bere maila eta interesekin; pare bat euskaldunberri ere bai tartean. Hezkuntzako haurrekin bezala hasi ginen ia-ia, oinarrikoena azalduz, arauak, errimak, oinak... Aurretik oraindik makuluekin ibili dira; paperaren laguntza daukate bertsolariak buruz egin ohi dituzten ariketa eta estrategiak burutzeko. Nolanahi

ere, bapatekotasunerako bidean goazela, hurrengo ikasturtean sakonduko dugu. Eskola hori edonori irekita dago, baita hutsetik hasi beharko lukeenari ere.

## Sorozabal eta Mendiluzeri eskainitako esker oneko ekitaldiaren antolaketan parte hartu duzu aurretik...

**U.M.:** Oso modu baikorren balaratzen dut ekimena, pertsonalki. Oso lantalde polita sortu zen ekitaldiaren inguruan (Udaleko euskara zinegotzia eta teknikaria, AEK, Aiurri, bertso eskola...). Eta batez ere, benetako luxua izan zen ekitaldia bera: plazetan elkarrekin nekez daitekeen bertsolari belaunaldi bat (Sarasua, Telleria, Peñagarikano, Loidisalete...) biltzea lortu zen, eta merezitako aitortza egin zitzaizkien Mendiluze eta Sorozabali, herriko bi bertsolari handiei.

## Esan al daiteke Andoaineko bertso gintza loraldia bizitzen ari dela?

**U.M.:** Baietz esango nuke. Forma hartzen ari den mugimendua da, gero eta indartsuagoa. Azken hamarkadatan oso sendo aritu diren inguruko herrien (Hernani, Lasarte...) kontrako joera bizitzen ari da, eta pozgarria da hori. Agian ez da egokia pertsonifikatzea, baina esango nuke behetik gorako dinamika horretan gakoa Ion Beloki bezalako kultur eragileengan dagoela.

## JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARI OHIAREN HITZALDIA BASTERON

Ibarretxe lehendakariak hitzaldia eskaini zuen Basteron joan zen ostegunean, EAJk antolatutako *Andoain Aurrera* foroaren baitan. EAJko zinegotzi eta datorren urteko Udal hauteskundeetan alkatetzarako hautagai Mari Jose Izagirrek egin zituen aurkezpen lanak.

Ibarretxek adierazi zuenez, politika utzi zuenetik akademia munduan dabil murgilduta, “helburu berberarekin jarraitzen dut lanean, hau da, Euskal Herria, bere kultura eta bere hizkuntza munduko plazan kokatzea”.

2010ean EHU defendatu zuen doktore tesiaren nondik norakoa azaldu zuen bere hitzaldian. Hain zuzen, honako izenburua du tesiak: “Printzipio etikoa, printzipio demokratikoa eta giza garapen jasangarria: eredu demokratiko baten aldeko oinarriak”. Egun, Jose Antonio Agirre Center fundazioak lehendakaria da, eta tesiaren ideia nagusiari eusten dio; alegia, globalizazioaren testuinguruan Euskal Herria bezalako errealitate kultural, ekonomiko eta politikoko diskurtso berezitua izan behar du-

tela. Mintzaldian zehar, Ibarretxek azpimarratu zuenez “ez da kontuan hartu nahi egun bizi dugun krisi ekonomikoaren atzean dagoen krisi kulturala. Globalizazioaren azpian, prozesu ideologiko bat dabil indarrean, uniformazioa bilatzen duena herrien nortasun eta kulturen ginetik”.

Errealitate horri gogor egin behar zaiola irmo adierazi zuen Ibarretxek. Gure Esku Dago bezalako gizarte ekimenak goiraipatuz amaitu zuen hitzaldi luze eta mamitsua Ibarretxek.



Ibarretxe eta Izagirre hitzaldia eskaini aurretik.

## ZAHARRAK BERRITUZ AZOKAREN HAMARGARREN EDIZIOA

# Bigarren eskuko azoka parte hartze handiarekin

Etxean denboran zehar pilatutako liburuak eta objektuak, aspaldi erabili gabeko jantziak,... soberan dagoena beste batentzat interesgarri izan daitekeelako hainbat eta hainbat andoaindar saltzaile modu-

ra aritu ziren "Zaharrak berrituz" bigarren eskuko produktuen azokan. Hamargarren edizioan parte hartzeak goia jo zuen. Horrela jarraituz gero, 2015ean mahaia gehiago jarri beharko dituzte.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

## JOMES OIARTZUN (OSABA) ETA JONE ETA ASIER (ILOBAK)

"Osabak azokan parte hartzea proposatu zigun, handitzen ari ginela eta gauza asko baztertua geneuzkela esanez. Etxeko ganbara husteari ekin genion horrela, alferrik geneuzkan gauzak salgai jartzeko asmoz. Denetik ekarri dugu Jone arreba eta biok: liburuak, bideoak, jostailuak, sukaldeko tresnak..."

Salneurri merkeak jarri ditugu, 50 zentimoko Gartxot bideotik hasi eta 16 euroko oinak masajeatzeko tramankulura bitarte. Niri, pertsonalki, pena pixka bat ematen dit Gormitiren liburuak salgai jartzeak, baina bestalde, uste dut berarekin irabaz ditzakegun sosek edozein atsekabe arindu dezaketela".

## ENKARNI CUESTA ETA AXUN JAUREGI

"Etxeko armairuetako atekak aldeaz alde ireki, eta aspaldian erabili gabe eta ahaztuta genituen arropak aukeratu ditugu. Udari begirakoak izan daitezuten saiatu gara: gonak, galtza motzak, poltsak... Horiez gain, gure seme-alabei jostailuak eskatu dizkiegu, pieza txikiekin eraikitzeak direnak batez ere. Horiek emandakoen artean, harritura geratu gara zenbaterako arrakasta daukaten auto txikiek! Legoak ere dezente saldu ditugu oraingoz.

Aurreneko aldia da merkatu honetara gatozela. Urnietakoak gara eta han ezagutzen duguna artisautza eta bigarren eskuko objektuekin neguan egiten den azoka da. Probatzera gatoz eta harrera ona edukiz gero, gustura errepikatuko genuke!".

## ANE MIREN GANTZARAIN ETA IRENE PINTO

"Geure etxeetan lekua alfer alferrik kentzen zuten gauza asko ekarri dugu azokara. Auke-



Gazte hauek taldean elkartu eta postua ipini zuten. Irudian Maider Callejos, Maider OIartzabal, Leila Txueka, Mara Lasa, Leire Izagirre, Uxue Marzol, Alaitz Mikelarena eta Ainhoa Armendariz.



Faustino Julio.



Ane Miren Gantzarain eta Irene Pinto.



Esther Imaz, ELAN erakundeko kidea.



Enkarni Cuesta eta Axun Jauregi urnietarrak: "Probatzera gatoz eta harrera ona edukiz gero, gustura errepikatuko genuke".



Osaba, eta Jone eta Asier Ilobak.

ra polita ematen digu azoka honek: etxeko bazterrak libratzen ditugu, eta bidez batez, diru pixka bat eskuratzen dugu; ezin hobe datorkigu uda denboran xahutzeko! Batez ere gure haurtzararen zati bat markatu diguten objektuak, ondo erabili izan ditugunak jarri ditugu salgai: jostailuak eta liburuak. Ordubet da mahaia ipini dugunetik eta oraingoz salmenta ondo doakigu".

## ESTHER IMAZ

"Munduan zehar (Nikaragua, Kolonbia, Venezuela...) garapen egitasmoak bultzatzen dituen gobernuen kanpoko elkarrekin da ELAN Euskadi, eta bertako kide naiz ni. Haren izenean etorri gara lagun bat eta biok. Postuan jarri ditugun objektu guztietatik, soilik mundua proportzionalki azaltzen duen Petersen mapa kartografikoari jarri diogu salneurria. Nahiago dugu erosleak balora dezan zenbat diru utzi nahi duen begiz jo duen objektu horren truke. Kontsumo arduratsua bultzatu nahi dugu azken batean; alegia, objektuek gure bizitzan daukaten balioaz nor bere azterketa egin dezala sustatu nahi genuke".

Aiurrik bildutako lekuko-tzak ikusita, azoka antolatzeak arrazoiak bizi-bizirik daude.

Argazkiak: Aiurri, flickr.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

## Sahara aldetik etorritako haurrei ongiatorria



Saharako haurrak Udal ordezkariekin batera.

Andoaingo udaletxeko ordezkariak ongiatorria eman diete Tindouff-etik etorri diren neska eta mutil sahararrei. Aurten bost haur etorri dira; Salem, Manira, Negbuha, Fatu eta Nafa. Ez da beraien lehen aldia Andoaingen eta herrira pozarren etorri dira, uda hobea izateaz gain, lagunak ikusteko irrikaz zeudelako.

Udalak urteak daramatza "Oporrak bakean" programa antolatzen eta Ana Carrere alkateak adierazi duenez, gustu handiz hartzen dituzte haurrak etxean. Basamortutik ateratzea baino harago

doa ekimen hau, izan ere, kalitatezko elikaduraz gain, haurrei osasun zerbitzua ematen baitzaie.

Gainera, herriari bizia gehitzen diotela adierazi dute: "Saharar haurrak etortzen direnean, herri osoak badaki uda hasi dela". Aurten, esate baterako, iritsi eta lehen egunean zain zizutzen lagunak futboleko jolasteko. Horregatik, herriko haurrekin integrazioa lantzen dutela adierazi dute ordezkariak eta, beraz, beraiantzat ez ezik, Andoaingarrentzat ere onuragarria dela programa.

## Andoaingen ere San Fermin



Korrikalari txikiak zezenaren atzetik eta aurretik korrika bizian aritu ziren.



Tamaina txikiko zezenak ere irten ziren Goikoplazara.

## ETXEBERRIETA PARKEAN OSPAKIZUNA

# Belardian jaia

"Udaberria zelaietan" euriagatik bertan behera geratu eta gero, aurreko larunbatean ospakizuna giro ederrean

egin ahal izan zuten. Ekitaldi askoren artean, haur jolasak edota Amaia eta Kristina trikitilarien saioa.



Eguraldiaren aurreikuspen txarrak ez ziren bete eta ospakizuna bere horretan igaro zen.



Afari meriendarekin amaiera eman zioten jaiari.



Haur jolasak belardian.

## KANPEZUKO KANPALDIA



Aurten ere La Salle Berrozpe ikastetxeak Kanpezun duen lursailean kanpaldia egiten ari dira. Denera, eta uztailearen 26ra bitarte, 9-15 urte bitarteko berrehun kide igaroko dira Kanpezutik. Eta haiekin batera lan handia egiten duten hainbat guraso, irakasle eta bolondres. Ikastetxeak dio kanpaldiaren helburuak "xumeak bezain garrantzitsuak" direla: "Gazteak dibertitu eta ondo pasatzearekin batera, euskara eta euskal kultura suspertu, eta jasagarritasunean eta inguruarekiko errespetuan sakontzea".



## KIROL ALBISTEAK

# Finalak Goiburuko pilotalekuan

Aurreko ostiral gauz Goiburuko pilotalekuan Gaztetxeak antolatutako bikoteen arteko eskuz binakako X. txapelketa finalak jokatu ziren. Aizpurua eta Gaztañaga gazteek osaturiko bikoteak, 2012an bezala, txapela eskuratu zuen. Uste baino errazago gainditu zuten Andoni eta Etxebeste osaturiko bikotea.

3-4. postua erabakitzekeo partidari Estebek James ordezkatu zuen. Partida horretan Amondarain-Loidi iazko txapelkunak garaile izan ziren, Kabra-Estebe bikotea garaituz.

Txapelketa amaituta, Andoingo Gaztetxeak 3x3 basket txapelketa antolatzeari ekin dio. Uztailaren 14an hasiko da, 24ra arte.



Aizpurua-Gaztañaga irabazleek bi finalak jokatu zituzten beste hiru bikoteekin batera.



Andoni-Etxebeste eta Aizpurua-Gaztañaga bikoteen arteko finala.




Izagirre "Kabra" bi paretakoari erantzuna eman nahian.

## Basket partidak Gaztetxean

Datorren astelehenean abiatuko da lagunarteko 3x3 basket txapelketaren bosgarren edizioa, Andoingo Gaztetxean. Uztailaren 14tik 24ra basket giroa nagusituko da.

## Estatu mailakoa jomugan



Josu Arregi Andoingo BTT lasterkaria Panticosan jokatzeko den estatu mailako BTT txapelketara begira dago. Profesional mailakoekin batera arituko da, beraz, bere mailan koska bat gora egin beharko du. Ez zaio hain zaila egingo estatu mailako BTT Openean erakusten ari den maila ikusita. Aurreko asteburuan Madril aldeko Becerril de la Sierran bosgarren sailkatu zen, podiumetik sei segundura. Biharamunean lasterketa izan zuen eta bertan seigarren sailkatu zen. Gustura dago Arregi aurreko erakutsitako mailarekin, "Oso pozik nago egindako Openearekin, bost lasterketatik hirutan parte hartu dut eta sailkapen nagusian seigarren postuan bukatu dut. Datorren urtean profesionalekin arituko naiz eta hor gauzak desberdinak izango dira". Zorte on Panticosan!

# Mikel Alonso eta taldekideak garaile



Euskal Herria trofeoak azken lasterketa jokatu zen Gatican eta helmuga eskuak altxata igaro zuena Mikel Alonso



izan zen. Sekulako denboraldia egiten ari da bera eta bere taldea. Izan ere, biharamunean Alonso Mendaron hiruga-

ren sailkatu zen. Podiumetik birritan igaro zen Mendaron, taldea onenak izan zirelako. Zorionak!

Jokin Alberdi eta Izarne Maioz, bestalde, Espainiako txapelketan izan dira uztailaren 4 eta 5ean, Jaenen.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larreamendi  
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOANGO UDALA

URNIETAKO UDALA

#### Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

#### Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

#### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
Webgunea: www.aiurri.com

#### Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Izarne  
Olano, Joxeba Lizeaga  
eta Jon Unanue.

#### Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta  
Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

#### Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com  
www.aiurri.com  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04  
**ISSN:** 1698-4870  
**Tirada:** 4.000 ale.

#### Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe  
Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

#### Banatzailak:

Mikel Arregi  
(Andoain), Gaizka  
Bernardo (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.



# Agenda

UZTAILAREN 10ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Jaiak

### Andoain

#### Karrikako jaiak.

Uztailak 18, ostirala:  
19:00 Txupinazoa.  
19:15 Buruhandiak.  
20:00 Sardin jatea.  
22:50 Karrika fest: Nuevo  
Vulcano, Herena eta  
Giordano Bruno.

Uztailak 19, larunbata:  
11:00 Burdina, kalejira.  
11:30 Haur jolasak.

11:30 Ortzaiakako karobia-  
ren piztea.

16:30 Puzgarriak.  
19:00 Trianaren saioa.  
22:30 Danborrada.  
23:00 Musika: DJ Nemux.  
01:00 Diskofesta,  
batxurizopa.

Uztailak 20, igandea:  
11:30 Meza Sorabillan.  
12:30 Sagardo dastaketa.  
12:45 Toka txapelketa.  
17:30 Play-back lehiaketa.

#### Etxeberrietako jaiak.

Uztailak 25-31.  
\*Oharra: Uztailaren 31n  
auzo bazkaria. Haurrentzat  
menu berezia. Txartelak  
salgai: Ikatza, Txalaka eta  
Itxaso.

#### Goiburuko jaiak.

Oilasko jokoa: Uztailak 31.  
Jaiak: Abuztuak 1-3.  
\*Oharra: Abuztuaren 1ean  
auzo afaria frontoian. Al-  
dez aurretik 27 euro, egu-  
nean bertan 32 euro. Txar-  
telak salgai: San Esteban  
eta Txertota.

#### Buruntzako jaiak.

Abuztuak 9, 15 eta 16.

## Matrikula

### Urnietan

■ Heziketa zikloak Salesiar  
ikastetxean. Izena emateko  
epea zabalik.  
Uztailaren 16ra arte.

### Andoain

■ Heziketa zikloak La Salle  
Berrozpen. Izena emateko  
epea zabalik. 08:00-13:00.  
Uztailaren 16ra arte.

## Musika

### Andoain

■ Mursego, Gaztetxean.  
Uztailak 11, ostirala. 22:00.  
■ Karrikan fest: Nueva Vul-  
cano, Herena.  
Uztailak 18, ostirala. 22:30.  
■ La Jodedera.  
Uztailak 20, igandea. 19:30.

## Aisialdia

### Andoain

■ Uda Gaztea 2014  
Uztailak 23, asteazkena:  
Txapa tailerra.  
■ Senda Vivara irteera:  
Uztailak 16, asteazkena.  
■ Gazte lokalaren udako ordu-  
tegia, asteartetik ostiralera:  
10:00-13:00.

### Urnietan

■ Udabentura, izena emateko  
epea zabalik Gaztelekuan.  
Uztailak 14, astelehena:  
Hernaniko igerilekura.  
Uztailak 15, asteartea:  
Stand up paddle.  
Uztailak 16, asteazkena:  
Donostia-Orio Donejakue  
bidean barrena.  
Uztailak 17, osteguna:  
Donostiako irlara.  
Uztailak 18, ostirala:  
Piragua.

## Liburutegia

### Andoain

■ Uztailan, astelehena:  
10:00-13:00 / 16:30-20:30.  
Asteartetik ostiralera:  
10:00-14:00.

## Ikastaroak

### Urnietan

■ Kiroldegian igeriketan edo  
ta tenisean trebatzeko au-  
kera. Haur eta gazteei zu-  
zenduta dago. Tenisean hel-  
duentzat ere bai.  
Hurrengo txandak:  
Uztailak 14-25.  
Uztailak 28-abuztuak 8.  
Abuztuak 11-22.  
Informazioa: 943 00 83 28.

## Irteerak

### Andoain

■ Debara eta Ondarroara  
txangoa, Santa Krutz erre-  
tiratuen elkartearekin.  
Irteera: 09:30, Olagain.  
Uztailak 12, larunbata.

### Urnietan

■ Etenetak antolatuta, Piri-  
nioetara irteera. Ibones de  
Anayet, Formigal, Portalet,  
Uztailak 12-13.

## Euskara

### Andoain, Urnietan

■ Mintzapraktika saioak Ba-  
naiz Bagara taldearekin.  
Andoainen ostiralero  
15:30etan bilduko dira Ju-  
bilatuen egoitzan. Urnie-  
tan, berriz, asteko bi hi-  
tzordu Lekaion: astelehene-  
ro 09:15etan eta ostegune-  
ro 19:30etan.  
Info: 645 733 818.  
banaiga@gmail.com

## Deialdia

### Andoain, Urnietan

■ Udalek langabetuak kontra-  
tatzeko dirulaguntzak es-  
kainiko dituzte. Tokiko en-  
presei zuzendurikoak dira,  
Lanbiden inskribatutako  
langabetuak kontratatuzko.  
Andoain: 943 304 221.  
enplegua@andoain.org  
Urnietan: 943 008 000.  
letxzarreta@urnieta.org

## Odol emaleak

### Eskualdea

■ Urnietan. 18:30-20:30.  
Uztailak 14, astelehena.

## Oharra

### Andoain

■ Sareko matxura baten on-  
dorioz, udal emailak ez  
daude erabilgarri. Hori dela  
eta, honako email hau izan-  
go duzue eskura:  
udalaandoain@gmail.com.

## ZORION AGURRAK

### ZORIONAK MARKEL



Gure etxeko  
futbolistak 9  
urte beteko  
ditu uztaile-  
ren 29an.  
Zorionak eta  
ondo-ondo  
pasa zure  
egunean.

ANDOAIN

### ZORIONAK



Zorionak  
aita!!! Egu-  
na disfruta-  
tu eta behar  
den bezala  
o s p a t u !  
Muxu handi  
bat etxeko-  
en partez!

URNIETA

## Sanmielak Kartel lehiaketa

2014KO SAN MIGEL JAIK IRAGARTZEKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAREN OINARRI ARUAUK.

- Nahi duten guztiak parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan.
- Jatorrizko lanek 32 cm-ko zabalera x 48 cm-ko altuera izango dute; ezinbestekoa da paperean eta kartoiolumazko euskarri gainean aurkeztea, kolore orotan eta edozein modalitate artistikotan. Lana formatu digitaletan ere aurkeztu beharko da, egindako formatu berean (32cm-ko zabalera x 48cm-ko altuera), 300ppp-ko erresoluzioan eta CMYK erako koloretan.
- Kartelak "URNIETA, 2014ko SANMIELAK" goiburua eraman behar du.
- Lehiakideak izango dira jabetza intelektualaren ondorioetarako aurkeztu dituzten obren erantzuz.

le, baita aurkez litekeen edozein erreklamazioren aurrean ere, irudi eskubidea barne.

- Entregatzeko epea uztailaren 22a da. Jatorrizko lanak Bertan bulegoan (tel.: 943 008 000 / urnietakoudala@urnieta.org) aurkeztu behar dira, sinadurarik gabe eta kartazal itxian, egilearen izena, helbidea eta telefonoa aditzera emanaz.
- Kartela irailaren 15a baino lehen hautatuko da. Hautaketa jai batzordean egingo da eta ondoren Udalak berretsi beharko du.
- Sari bakarra 450 eurokoa izango da.
- Saritutako obra Urnietako Udalen jabetzan geldituko da.
- Lehiaketara aurkeztutako kartelak erakusketara bat egingo da Lekaion.
- Erabakia apelaezina izango da.

